

ortzadar



MUSIKA
AMAITEZINA DA
ESNE BELTZA-
REN KONTZERTU
EGUTEGIA.
MUSIKA BELTZA
JOTZEN DUEN
EUSKALDUN
ZURI TALDEA-
REN ARRAKASTA
EGINDAKO
LANAREN
ONDORIOA DA
6 orr.

Irati Jimenez

Erdi gizaki erdi kale katu

IDAZLEAK 'ATSEKABE ZAITUT' ARGITARATU BERRI DU

Hainbeste maite duen Bilbo hirira lotuta dago *Atsekabe zaitut*, Irati Jimenezek kaleratu berri duen marrakiz hornitutako narrazio laburra. Tristuraz eta atsekabez beteriko istorio honetan protagonistak batzuetan gizaki itxura duten katuak dira.

ARKITEKTURA
'ALDIRI' DA
EUSKARAZ
ARGITARATZEN
DEN ARKITEKTU-
RA ALDIZKARI
BAKARRA. KRITI-
KA ZEIN DIDAK-
TIKA LANTZEN
DU, TOKIKO EGI-
LEEI ARRETA
BEREZIA
ESKAINIZ
7 orr.



LITERATURA



irati Jimenez

“Existitzen dira Bilbo paraleloak Bilbo erdi Miami Vice honen barruan”

Testua **ANE AGIRRE** Argazkiak **DAVID DE HARO**

‘NABARRA’ (NBR) ALDIZKARIAREN BRIDAK HARTU DITU. HORRETAN SARTUTA, BEHARBADA DENBORA GUTXI DUELAKO, NARRAZIO LABURRAK BAINO EZ DITU IDAZTEN AZKEN BOLADA HONETAN IRATI JIMENEZ IDAZLE MUNDAKARRAK. AZKENA EGUNOTAN KALERATU DA: ‘ATSEKABE ZAITUT’, BILBO HIRIRA “OSO LOTUTA” DAGOENA



ABANDOIBARRAN zita. Euri tanta batzuek mehatxu ikuitua agertu duten arren, laster aldegin dute. Coca-cola eta kafea eskatu ditugu. Musikariak hurbiltzen hasi dira, alboko txokoa okupatu dute. Jazz kontzertua eman behar dute. Apur bat urrundu gara musikak elkarriketa eragotz ez dezan. Irati Jimenezek musikariak begiratu ditu: “Musika aproposa litzateke”. Kaleratu berri duen *Atsekabe zaitut* lanaz ari da. Kontakizunak ipuin neurria du. Tristuraz eta atsekabez beteriko istorio bat da.

Ipuin luzea ala eleberri laburra?

Sailkapen beharra nik uste dut kanpotik datorren gauza dela. Irakurleari esan behar zaio zer irakurri behar duen; eleberria, komikia, eleberri grafikoa... kasu honetan zaila da sailkatzea. Ia-ia *Bat bi Manchester*-en neurria dauka, eta hura eleberri laburra zen. Baina laburregia da nobela izateko. Niretzat hauxe zen neurria. Sinplea egin zait. *Atsekabe zaitut* idazten hasi nintzen ez nuen argitaratzeko asmorik. *Nora ez dakizun hori* amaitu berri nuen, asko eskatu zidan nobela hark, erabat husturik sentitzen nintzen. Baina hustasun garaia pasatu ondoren idazteko beharra sentitu nuen. *Atsekabe zaitut* gorpuzten joan eta eta istorioaren neurria honela gelditu zen.

Zer gertatzen da katuekin azken boladaotan?

Eider Rodriguezen *Katu jendea*-gatik diozu? Eiderren titulua jakin nuenean pentsatu nuen, “hara!”. Nik beti maite izan ditut katuak. Jendeak esaten du txakurrak nobleagoak direla, katuak oso independenteak direla. Baina nik uste dut hori bertutea dela. Katuak liluragarriak dira.

Liburuaren izenburuak liburuko protagonista baten tesian du oinarria...

Ipuineko protagonistak katuak dira. Bazueta katu itxura dute eta besteetan gizaki itxura. Katu moduan munduari atsekabea ekarri behar diote. Jendearengan dagoen berezko atsekabetasuna piztea da katuen zeregina. Katuek pentsatzen dute atsekabetasun hori ateratzea beharrezkoa dela. Protagonista nagusienak bere garaian katuen artean oso ezaguna zen tesia kaleratu zuen, “atsekabe zaitut”. Hortik izena. **Roberts piratari eskaini diozu.**

Roberts pirata *The princess bride* pelikulako protagonista bat zen. Ni beti izan naiz oso piratazale eta pertsonaia hau izugarri gustatzen zitzaidan. Ipuin hau nire bizitzako momentu batean jazotako laztasunak eta aldaketak azaltzeko erabili dut. Aldaketetan beti egoten dira pertsonaia garrantzitsuak, ez? Nirean ere egon zen. Nire burua galduta ikusten nuen, noraezean, eta berak... ez dakit norabidea erakutsi zidan baina nire buruan konfidantza eman zidan. Orduan ikusi nuen etorkizuna irteera asko

“Euskal kulturaren nekez aberastuko da inor, baina txikitasun horretaz baliatu behar gara bestelakoak egiten ausartzeko. Uste baino libreagoak gara”

“Sarri zoriontsu izateko klabeak falta zaizkigu”

dituen lekua dela.

Marrazkiak izugarriak dira.

Zoragarriak dira. Idazten duzunean bazueta pertsonaien ahotsak etortzen zaizkizu, kasu honetan irudi estatikoak zetozkidan. Txalapartan komentatu nuen, eta Harkaitz Canoren bidez Iratz Inziartekin lan egiteko abagunea sortu zitzaigun. Lehenengoz elkartu ginerako bazituen marrazki batzuk eginak. Koloreetan, gero zuri beltzean gelditu ziren. Saiatu gara bakoitza bere bide kreatiboa jorratzen. Esan nion bakarra izan zen testuak iradokitzen zionari jarraitu behar ziola. Hasierako marrazkietan ikusi nuen *Atsekabe zaitut*-entzat nahi nuena; berak tinta beltzean marrazki liluragarriak egiten ditu eta nik zuri beltzean irudikatua nuen ipuina. Gero prozesua naturala eta erreza izan da. Suerteza izan du eta nire ustez emaitza ederra izan da.

Ipuinean agertzen den Bilbo ezberdina da, Katu Kale ez da Abandoibarrako pasealeku eder hau, beste gauza bat da.

Nik uste dut hau oso ipuin bilbotarra dela. Bizi naizen tokiak izan du eragina istorioan. Errekalde inguruan bizi naiz, eta asko gustatzen zaizkit Casilla inguruko tabernak, hor giro bilbotarra geratzen da, gizonak tabernetara doaz, Athletic-zaleen taber-



nak... eta oso erakargarria egiten zait; ia desagertzeaz dagoen munduaren xarma da. Nik txikitan gorroto nuen Bilbo, hain zikina, hain herdoildua... oso egokia atsekabeaz eta zalantzaz eta beldurrez hitz egiteko. Egia esan, hasierako izenburua bestelakoa zen, *Pozas kaleko taberna batean*. Hasieratik oso lotua egon da hirira, nik uste dut beti idazten dudala lekuetara oso loturik. Katu hauek gutako gehienontzat ikusezina den Bilbo batean bizi dira. Abandoibarran ikusten ez ditugun beste leku batzuk imajinatzen nituen; beste eliza, mezkitak, beste auzune paralelo batzuk. Horiek oraindik daude Bilbon. Bilbo paraleloak daude; San Frantziskon, Errekalden gorako etxeetan. Oraindik existitzen dira Bilbo paraleloak Bilbo erdi Miami Vice honen barruan.

Denok izan gara inoiz Katu Kalen.

Nik uste dut baietz. Ipuinetako tesietako bat da berez pertsona batzuk mundu inbisible horiek ikusteko badituztela gaitasun bereziak. Inork ez daki zergatik ikusten duten ondoan dagoen beste mundu hori. Momentu batzuetan denok sentitzen gara Abandoibarra eguzkitsuan, eta beste momentu batzuetan Pozas kaleko taberna ilunetan. Nor ez da inoiz Katu Kalen egon? Pertsonaietako bat oso momentu txarrean dago. Denok sentitu izan gara horrela, maitasuna dela edo beste arazo bat dela. Sarri zoriontsu izateko klabeak falta zaizkigu.

Gaitzizenak nagusi dira Katu Kalen.

Protagonistak erdi gizaki erdi katu dira. Giza-ki izena izan balute irakurleak berehala gizatasuna emango lioke, eta nik ere bai. Izena ematen diozunean izana ematen diozu, izan ere, izenak oso garrantzitsuak dira pertsonalitatea garatzeko. Pentsatu nuen izen heterodoxoagoak izan behar zutela. Horregatik protagonista Eme da; bere laguna Hamar. Eta gero ginebra zalea den Ginebra erregina dago. Hasieran Ginebra andrea zen, baina gogorarazi zidaten Sarrionandiak ezagutarazi zuela Ginebra erregina, eta horrekin gelditu zen. Oso gauza polita da berbataiatzearena. Gu X gara baina aldatzen garenean lagunei izena alda diezaguten eskubidea ematen diegu. Nortasunaz eta identitateaz asko hitz egiten du ipuinak.

Protagonistetako batek esaten du: "Aukera galduak ordaintzeko ez dago munduan dirurik".

Horrekin oso ados nago. Maiz, beldurragatik edo aukerak pasatzen uzten ditugu eta benetan tristea da. "Egin izan banu" hiru hitz tristek dira.

Egilea

► **Mundakan** jaio zen, 1977an, eta egun Bilbon bizi da. Idazle eta kazetaria da. Hitzekin jaio zen. Aita idazlearen magalean entzun zituen piraten lehenengo ipuinak eta Julio Cortazarrenak ere bai. Amaren ileapaindegian solasaldietara zaletu zen. *Malcolm X: Duintasunaren kolorea* biografia izan zen bere lehenengo lana. *Bat bi Manchester* eleberrri laburrak irabazi zuen Augustin Zubikaral eleberrri laburren lehiaketa. *Nora ez dakizun hori* eleberrriarekin Igartza sariketan akzesit-a lortu zuen. 2.008. urtean Kutxa saria eskuratu zuen *Laranja azalaren negarra* ipuinarekin. *Atsekabe zaitut* bere momentuzko azken lana da.

► **Irakurketa vs idazketa.** Idatzi eta irakurri, horiek ditu zaletasunetako batzuk. John Irving-en azkena dauka esku artean eta gozaten ari da. Idazteari dagokionez NBR aldizkarian ditu indar denak. Sormena, baina, ez du baztertu eta ipuinak idazten ari da, "beharbada denbora gutxi dudalako". Zorroan koaderno txikia darama; tarteka atera eta otutzen zaizkionak idazten ditu.

► **Bilbo.** Izugarri gustatzen zaizkio Bilbo guztiak. Etxerako bidea disfrutatzen du, supermerkatu zaharrak, betiko tabernak, txoko ostenduak eta Pozas edo Zazpi Kaleetako tabernak. Hiria zapaltzea du gustuko, bazter orotan dagoelako istorio bat edo bi.



Irati Jimenezen azken liburuaren azala.



► **"Pozak ezin du iraun" ere esaten dute.** Bai, Hamarrek esaten du. Bere tesia da atsekabea behar dela, eta poza tximista bat baino ez dela. Beste pertsonaia ez dago berarekin ados, behintzat zalantzak ditu. **"Boligrafoz idazten du berbak neurtzera behartzen zaituelako".**

Egia da boligrafoz idazten duzunean zeure buruak sormen prozesua kontrolatzen du. Boligrafoz eta arkatzez idaztea ezberdina da. Boligrafoarekin ez da atzera bide-

rik, eta horrek berbak kontrolatzera eramaten zaitu. Idatzi aurretik pentsatu egiten da, astiroago idazten duzu.

► **Aldaketa sasoi honetan NBR aldizkaria etorri da, Nabarra aldizkaria zenaren lekukoa.** Bai, hortik etorri da. Nik uste dut aldaketak datozenean ikusi egin behar direla, eta hortik dator Nabarratik NBR-ra pasatzearena. Izena aldatu diogu baina izpituari eutsi diogu. Beharbada begirada apur bat aldatu da, baina oraindik ere Euskal Herri-

ra begiratzen du. Lehen ez zen nafarra eta orain ez da bizkaitarra. Gaurkotasunetik aldeginde beste leku batzuetara begiratzen saiatzen da, edo leku berberera baina beste ikuspuntu batetik. Nahi nuke NBR imajinatzeko leku bat izatea. Euskal kulturaren nekez aberastuko da inor, baina txikitasun horretaz baliatu behar gara bestelakoak egiten auzartzeko. Guk uste baino libreagoak gara, imajinatzeko eta sortzeko eta indar horri etekina atera behar diogu.